

# ZER

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

113n. Zenbakia **Azilla**  
1987



**BILBO  
GOGOAN**

## **BILBO GOGOAN:**

- Nerbion Ibaia
- Zubia
- San Anton eleiz ederra
- Etxe zarrak eta barriak
- Berebillak
- Bilbo betikoa ta barria
- Euskaldun izan naian

## ITURRIOTZ ETA EZ TURTZIOS



Altuna ta Mendiola'tar Josu, 1909-4-7'an Zornotza'ko Pagola-Bekoa base-txean jaioa, Ander eta Mainton'en semea, amabi neba-arrebaren artean bederatzigarrena. Amalau urtekoa zala Galdakano'ko Gumuzio edo Erletxeak deritxon auzoko Basakiña-barrena'ra etorri zan biziten eta arrezkero erri onetan bizi izan da.

Beste askotan lez, orain alditxu bat Enkarterria zear ibilli nintzan eta, Iturriotz (Trucios)'ko sarreran idazkun samingarri bat ikusi neban, euzkera-zalea izanik, benetan zirriada mingarria egin eustana: Trucios edo obeto Iturriotz ipiñi bearrean Turtzios izki aundiakaz ipinten eban idazkuna.

Guk ez dakigu iragarki ori Iturriotz'tarrak ipiñia ala, Bizkai'ko Aldundiak orretarako dituan euzkeratzaleak egiña dan, baiña, itzultzaille orrek lotsa edo begirune pizka bat bakarrik ba'dautso euzkera euzkotar guztion izkuntzari, lan orretan eskuratuten dauan txinditza, bada ziur gagoz ez dabela duan egingo, obeto egingo leuke euzkaltze bateri laga edo euzkeraz obeto ikasi. Ori ta orren antzerako beste iragarki asko ikusten doguzalako batean bestean, askenengo urteotan.

Uste dogunez, Bizkaitar gitxi izango dira Iturriotz nun aurkitzen dan ez dakienak, baiña, danadala ez da txarto izango beratzaz argibide batzuk ZER gure aldizkari onetan argitaldutea.

Iturriotz, Enkarterrian Sarkaldera, Karrantza'rako bidean, iru edo lau aneinek eskoma-aldera aurkitzen da, Arzentale, Karrantza eta Sopuerta Udal-erriakaz eta baita Ipar-Sakalde'tik Kantabria'z be, mugatuta. Eta txarrena, beronen, Iturriotz onen barruan bizkaitarron eta euzkotarron lotsagarri dan Iturriotz'eko Uri-Orlegia (Villa Verde de Trucios) aurkitzen da, eta ori konturaturik edo, lurralde ortako biztalerik geien-geienak bizkaitarrak dirala dirauskue eta ez Kantabriarrak, eta beraz, beste bizkaitar guztiak lez, Euzkadi'gaz bizi gura dabela.

Uri Orlegitarrak eskapide zorrotzak egin dautzoez Kantabria'ri emon daitsoela, eskubidea daben lez, errietxi (referendun) bat egiteko, erritxu ori zertara dagoan ikusi daiten, baiña, Kantabriak entzun-gor egiten dau, ba'dakialako erri ori Enkartaerri eta beraz bizkaitar ikusten dala.

Baiña goazen lengora. Iturriotz, bizilagunez txikia da, orain 50 urte 1.500 biztale inguru euki ebazan eta orain, 500'en bat

Oso erri garbia ta baketsua. Mendiak inguratua eta orregaitik, geien bat aberetzatik eta lugintzatik bizi dana.

Eta zelan ez! menditsua ta ur ozkirri ta gardenez ondo ornidua da eta, ur garden orreri jatorkon iturri apaiñak, ertitsuak, dauz auzune guztietan.

Bost edo sei auzunek osotzen dabe eta, eurotaiko irutan beste ainbeste zezen n-enparantza dagoz, orretara bere aldameneko Karrantza lez erakusten dau, zezen-zaleak dirala bertako biztaleak.

Erri ori ingurutzen daben mendiak, ikusgarriak dira, ikuskizun asko ta bikaiñak.

Ipar-aldera, Jorrios (gure ustez ba'leiteke Gorriotz izatea bere jatorrizko izena) bere 847 neurkin goraka dituala eta, pizka bat Sarkalderago Armañon 855 neurkiñekin (ez ete da bere jatorrizko izena Arrimuño muiño aundia eta arriñua izanik).

Sorkaldetik Betayo 725 neurkin eta Alen (Castro Alen) 798 neurkin goitik dituala.

Ego-aldera barriz pizka bat urrunago, Garbea 719 neurkin dituala eta azkenez, Koltiza 874 neurkiñegaz inguruko goitiena eta zer ikusirik geien dauana.

\* \* \*

Lenago esanak garan lez, Iturriotz onek ur garden eta ozkirriak ditu eta, ba'leiteke bere jatorrizko izena ortixek etortea.

Baita ba'leiteke erri polit onek guk ezagutzen ez dogun beste zerbait eukitea be, bere menditarteatan, baiña dakiguna azaltzen asi gara eta, orretan amaitzen dogu.

Azkenez Ego-aldeko Euzkadi'n azkenengoz ementxe batu zan lenengo Euzko Jaurlaritza, Bilbo Franco'tarren menpean jausi ondoren, Santander'era eta urren Prantzi'ra alde egin baiño len. Beraz, ba'dau euzkotarrontzat kondaira pizka bat ITURRIOTZ onek.

Beti Iturriotz, bertako askok esaten dabenez eta iñoz be ez "Turtzios".

# UDAGOIENA

Zugatz-artera sartu naz, iratza aundi ederren artean galtzen naz, ira-ondoetara begiratzen dot, bitarteetan perretxikorik edo olakorik ikusiko ete dodan.

Udabarrian sortu eta udaldian argitsu ta eder iraun daben lora politikak joan dira gure begien aurretik, inguruko bedar orlegiak baiño besterik ez da geratzen.

\* \* \*

Igale-landarak billoiztu dira, igaleak umotu ta jausi egin dira, jabe ardurabakoak bere sasoiak batu ez ba'dauz, eta orain orri oriak darabiltz aizeak ara ta ona eta azkenean lurrera jausten diranean antxe usteltzen dira urrengo landarentzat ongarrri izateko.

Eta zugatzetan abar meeak gogor eta aizkor jarraitzen dabe udabarriko berbikundearen zain, abar lodiak ostera ezotu egin dira eta lo dagozela esan lei. Atsedena artzen dagoz.

Udagoienak bere usain berezia dauka, igale umotak eta orri ori jausiak batera sortzen daben usain baretsua.

\* \* \*

Udagoienak aizetsuak izaten dira, aurten batez be.

Eta aize zakarrak eta kaltegarriak alde batera, udabarriak aize biguna ta ozkirria ekarten daki, lur-gaiñean gure usainmenera bialtzen dauan usain berezia aldatzeko ta barriztatzeko.

Udagoieneko aizea! Toki ezkutueta gagozela firifiri igaroten dana, lotaldian gagozenezan zugatzetan eta leioetan zarata berezia egiten dauana, aize gozagarria!

\* \* \*

Eguzkia lotsati biurtu jaku udazken onetan.

Egunak laburrak. Argi-izpiak bero-indar gitxikoak, laiño gorriak arratsaldeetan, toki epelak eguzkibegietan, eguzki aundia bere logurea kendu eziñik laiño lodien artean sarritan.

Udagoieneko eguzkia, gozoa baiña urria, ederra baiña ezkutua, berogarria.

Itxasoak bere egunik larrienak izaten dauz urtealdi onetan: Itxasgora ta itxasbera biziak, olatuen gaiñetik datorren aize kresaltsua, ondartzetako bakartada arrigarrria, itxasertzeko atxarteak agertzen daben sendotasun ituna eta an-or-emen itxas-ontziak izaten dabezan ezbear tamalgarriak...

Udagoieneko itxasoa! Izadi-giroagaz ondo alkartua.

\* \* \*

Eta gizakiak be euren udagoiena dabe: Jantzi illunagoak jantzi dabez, estalki lodiz estaltzen dabe gorputza.

Euren barrua be giro barri baten dago, illunago, lanerako gogotsuago, gaiso-aldiak ugariago, eriotzak sarriago...

Ai! Orri-jaustea! Gaisoentzat aldi arriskugarria! Ezti-ketak egin bear baiña ori ta guzti be, sarritan, osasuntsuak gaisotu eta gaisoak eriotzaratu. Ez da udagoiena osasungarria.

\* \* \*

Piztiak be agiri dira da. Ez dago lengorik. Euren abiak egokitu bear, laster etorriko dan neguaren gogor-keriari erantzuteko. Batzuk lo ta lo egiten dabe, beste batzuk janari billa estu ta larri, abereak udagoienean baragarri!

Baiña izadiak ez dau galtzen itxaropena. Egunak gaua dakar eta gauak eguna. Udagoienak negua dakar eta neguak udabarria. Beti dago berbikunde baten itxaropena.

Eta orrelan izan bear leukee gizakien itxaropenak be. Pozaren urrengo nekea, baiña nekearen urrengo poza, bizitzaren urrengo eriotza baiña eriotzearen urrengo bizi barria.

Udagoiena, zartzarrea, negurako ta eriotzarako bidea, udabarriako ta gaztetan barrirako itxaropena. Aurre-ra doa gizona.

Udagoienean Domu Santu eguna. Esandako danaren ezaugarri dan jaia, itxaropenaren eguna, illak dagozan lekuan lorak ikusten dira. Bizi da erria.

## LANTZEN

Baserrian, kalean, ikastetxeetan, edonun, berba au entzuten da, lurra sortu zan ezkerro. Alper guztiak aparte, eskuetan edo buruan, langilleak eta ikastunak lanaren ezaugarria daroe, Atxurak eta aizkorak babak sortzen ditue esku barruetan ta jakituriak buruan. Batzuk, errez errez, ikusten dira esku zabalean, besteak, ixil ixil, dagoz garunen ondoan.

Lana dala-ta, gizona kezkatu ibili oi da bizitzan ta bear egin bear bizi al izateko. Au da urdaillaren kome-ria. Gizakia, goizetik gabera, arduraz dabil lanaren billa. Izan bere, izadi guztia da gizadiaren bizi-biderako. "Guztia zuentzat da, landu egizue". Sorreran, alan, izan zan.

Lanetik lanera aldea dago. Batzuk mendikoak, batzuk solokoak; batzuk itxasokoak, bestetzuk miña edo miatakoak. Egilleak guztia itzi eban, ondo, orniduta ta giza semea almenez jantzita lur ta itxasoaren babesetik bizia atera egian.

Bear izanaren eran, batzuk lugiñak dira. Lurrak, berez, sasiak emoten ditu ta ez edozelakoak. Ortarako, indar barru barrukoa dauka. Lurra sasiarentzat mamiña da ta arri arteetan bertan, gogotsu, agertzen dira. Ta bizi nai ba-da, atxurra artu ta izerdia botatea besterik ez dago.

Lugiñak eguzkitik eguzkira lan egiten dau. Aurregune-ko nekeak arinduz batera, barriro, laiaz, goldaz eta atxurrez ekin bear deutso iñundiko arlo zailletan. Izerdiak eta egarriak nai aiña, baiña biziak eskatzen daben eran, aurrera ekin bear. Au da baserritarren zoria. Alaber, aurrera, doa, geldi geldika, edertuz baserriko lubarri ezikaitza.

Lurraren sasi indarrak baiño geiago al dau gizonaren almen ta lan gogoak, lurrari zitu edo frutu ederrak emon-eraziz.

Beste langille talde aundi batzuk itxasoan dabiltz, sarri, biziak urratzen janari billa. Aldika, itxasoa oparoa da eurentzat; baiña itxasoak, noz nai, ditu trumoi, aize, astiñaldi, bero, otz ta bakardade mingarriak. Arrantzaliak; alan be, bear-izanak eraginda, neke guzti orrek menperatzen ditu. Estu ibili da, baiña nagusi urten dau, urrialdiak izan ditu baiña azkenean be, itxasoaren erraiak zabaldu jakoz ta sareak arraiñez itxuratu jakoz. Itxaso eta arraiñak lanaren bidez gaindu ditu.

Ba da gizartean beste lan arlo aundi bat; danetan garrantzitsuena ta landuten zailena. Askatasundun giza-semea lantzea, danez goitik dago. Sasiak, arriak, enborrak, burdiñak, giza-semeak bere naietara lantzen ditu, edertasun itxura emonez. Baiña gizonaren burua ta biotza lantzen asten diranean egi ta zuzentasun bidean, sarri askotan, laster jarkiko da gizona zutunduta.

Egia ta zuzentasuna norbere erakoak nai ditu. Okerbidean egon leitekenik, ez dau onartzen. Norbere okerkeriak iñausi ta jentearan aurrean gizon obe ta barri baten bizitza egiten aztea, lotsarizkoa deritxo. Gu, adimendun gizonon jokabidea, sarri askotan, era ortakoa da. Ona emen, gizonen lubarria, danetan garrantzitsuena, etxeak, lanak, jakituriak, erriak aztertu ta zuzendu bear dituna ta norbere burua lantzeko indar bagea sarri askotan.

Aitatu ditugun lur, itxaso ta gizadian, gizadi sailla da ba lantzen zailena. Otea ta larra gogor jarten ba-dira, koskorreko gogorragoa emon eta bera botaten dira; baiña gizona bere askatasun ta eskubideak direla-ta, umeak ere, aurrez aurre, jarten dira zuzenbiderako berba asko entzun baiño len noz nai.

Oteak mendietan  
urrezko margoetan  
pizti ortzezkoak;  
arantza ortzak gogor  
leoi agiñak legez  
sastakor gaiztoak.

Basurdeak, an bertan,  
baso errege antzo  
pizti orroetan;  
gau-ontzak gabaz, ulu

zugatz lerdnaren gain  
erio miñetan.

Eiztari ta lugiña  
suizkilluz ta atxurrez  
goizeko izarraz;  
leoiak jausi dira,  
oteak lur gaiñean  
atxurren bildurraz.

PAULIN

## ERRIKOAA

Urtero lez Gernika-aldean opor-aldia igaroten nago eta beti lez erri-euskaldunakaz alkartean eta euskeraz berba egiten (Ni Enkarterrikoa naz eta nire errian ez da euskerarik entzuten). Geroago ta errankura geiago aurkitzen dot euskaldunen etxeetan erriko euskerea, bizkaiera, galtzen doalako.

Nik, zergaitia jakin gura dodanean, beti erantzuten dauste gauza bardiña: "Seme-alabak eta illobak 'batua' ikasten dabe edo obeto esateko irakasten dautsee eta ez bardiña da ezkeror derea gurago dabe nasterik ez sortzeko. Bestela, azterketak egitean bizkaiera ta batua nastau egiten dabez eta 'kalabazak' emoten dautseez, eta eurek bizkaieraz ikasteko aukerarik ez dauke, ikastetxe ta euskaletzetan irakasten dana batua dalako".

\* \* \*

Bai, ori egia da, nik "Izkuntza-Eskola"n ori egiztatzeko aukerea izan dot eta gaiñera H'ak erabilten eta beste moda batzutan idatzeko beartzen ginduezan eta egiten ez ba'dozu, galduta daukazu ikastaroa.

Niretzat barregarriena ikasteko liburu batzuk (eurak antolatua) H barik eta araubide barria artu barik egotea zan. Baiña sarritan gauza batez konturatzen nintzan: Euskaldunak

askotan ez ekien erabilten ebezan itzak eta aditzak bizkaieraz ala batuz ziran. Au da naste-borrastea!

\* \* \*

Ortik dator nire asarrea. Bizkai'ko guraso ta aitita-amama guztiok! Zuek eskubide osoa daukazue zuen seme-alaba, loba ta billobak bizkaiera ta bizkaieraz ikasi dagiela eskatzeko!

Ao batez eskatu erriko euskera ikastetxeetan, ikastoletan eta leku guztietan irakasteko!

Ondo konturatzen zarie "batuak" lortzen dauanaz? Eta zergaitik?

Au tamala! Erriko jenteak alperkeriagaitik, erosotasunagaitik edo zabarkeriagaitik, euren asaben lotsarako, baimena emon dau ondamedi au eldu daitea.

Gora erriko euskal-zaleok! Bat egin daigun geure abotsa Bizkaia'n bizkaiera irakatsi daiten!

Burujabetasuna zer dan ba-dakigu ala aitzu egin jaku?

PALMI (1987-7-23)

## IPUIN-SARIKETA

**EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k**, urte guztietan lez aurten be, ipuin-sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

- Ipuiñak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazkerea, **EUSKERAZAINTZA'k** argitaratua eta **ZER** aldizkarian erabilten dana.
- Ipuiñak asmaurikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
- Luzeerea iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak **ZER'en** argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.

- Azillaren azkenerako **EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren** etxean (Bilbo'ko Colon de Larreategi 14.2.ª, eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta **ZER'en** agertuko da, Urterrillean, baita **DEIA** Egunkarian be al bait lasterren.

- Sariak lau izango dira:

- 1.ª 40.000 pezeta
- 2.ª 30.000 pezeta
- 3.ª 20.000 pezeta
- 4.ª 10.000 pezeta

- Ipuiñak izen-ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

EUSKERAZALEAK

## OMENALDIA

# ANES ARRINDA (1987-10-25.—Deba'n)

### ZERGAITIK

Batzutan il diranai, beste batzutan bizi diranai, omenaldiak eskintzen jakez aspaldion, lenago baiño ugariago, euskaldun ospetsuai.

Urrillaren ogei ta bostgarrenean izan da Deban Arrinda'tar Anes'eri eskiñitakoa. Izan dala diñogu, lan au idazten nagoanean oraindiño egun ori etortekoa izan arren, irakurleak ZER'en zenbaki au artzen dabenerako igaroa izango dalako.

Omenaldia zergaitik egiten jakon itauntzen ba'dogu, Anes Arrinda'k merezi dauala esan bear, omenaldia abade lez, euskaldun lez, idazle lez eta bera lankide izan daben bazkunak zor dautsoelako.

Egun orretan ez dogu izango Deba'ra joaterik, igandea izanik igandeetan abade garanok lan bereziak izaten doguzalako, baiña ZER aldizkariak ba-dauko zergaitik omenaldi orretan izan, aldizkari onetan be idazle ugaria ta trebea dogulako Anes. An izango dira gure lankide asko.

\* \* \*

### ABADE

Omenaldia egiteko lenengo zioa, zalantza barik, Euskalerrian eta abade lez egin dauan lana izango da.

Abade euskaldunak Erriaren alde jokatzeko aldi larri ta estuak izan dabez oraintsu, laster Etxaniz'tar Nemesio'ri egingo jakon omenaldian be agertzeko erea izango dogun lez.

Abade euskaldunak mundu guztian dira ezagutuak une larrietan euren erriagaz alkartuta jokatzan jakin dabelako. Eta oneitarikoa dogu Anes.

\* \* \*

### EUSKALDUN

Arrinda abadea benetan euskerearen maitalea eta euskeraz egiten zalea dogu eta iñoz batzarretan ederea entzuten danean, berak laster eskatzen dau euskeraz egiteko. Orixe egin bear genduke guztiok.

Berak gizpuzkoeraz berba egin arren, gure artean erderaz mintzatzea oso gauza gaitxa izango litzake. Artu-emonetako izkuntza oitura biurtzen da.

### IDAZLE

Deba'ko txanburu izan dan Anes jaunak, bere astialdiak eta sarritan loari kendutako orduak idaztera sartu dauz eta ainbat dira berak idatzitako liburuak.

Gogoan daukagu orain urte batzuk irakurri genduan "Semen de Lazkano" bere elebarria, kondaira-girokoa eta ederra. Liburu orreri azterpen bat be egin geuntson ZER onetan.

Eta ez liburuetan bakarrik, izparringietan eta aldizkarietan be idazle ugaria dogu Anes. Or daukaguz gure aldizkari onetan berak illero eta aspaldion idatzitako lanak.

\* \* \*

### KARDABERAZTARRA

Anes'ek euskerea indartzeko lana ez dau egin berak bakarrik, beste batzukaz alkartzen izan da zalea eta Kardaberaz Bazkuna'koa dogu Manuel Lekuona jaunak guda-aurrean bazkun au sortu ebanetik asita.

Oraintsuago, Kardaberaztarrak bazkun au barriztu dabenean, an eskiñi eban bere lan bizi-bizia. Batzarretan beti aurkitzen dogu eta ez isillik egoteko bere eritxiak agertzeko ta laguntzeko baiño.

\* \* \*

### EUSKERAZAINTZAKOIA

Euskereak Arantzazu'ko eta 1968'an egindako batzarrean artu dauzan okerbideak ikusita, Anes'ek jokabide zuzena artu eban eta asieratik, Bergara'n egin zan 1978'ko batzarra egin zanetik, *Euskerazaintza* sortzen eta indartzen lankide izan zan. Beti ikusten dogu alkarte onek Eibar'en illero egiten dauzan batzarretan.

### ZORIONAK

Omenaldi au dala-ta Arrinda'tar Anes'eri gure zoriona ta eskerrik onena eskintzen dautsagu.

Urrango ZER'en emongo doguz barri zeatzagoak omenaldi oneri eta Anes'en bizitzako jakingarriai buruz, baiña bitartean orixe opa dautsagu: Zoriona izan dagiala eta lan oneri adoretzu jarraitu dagiola, ba-dago zeregin-eta.

OLAZAR'TAR MARTIN'EK

## MENDEURRENA LAUGARREN

Aurtengo Epailaren 31n, Durango'ko bonbaketa-  
ren 50'garren urtea bete zanean, Sta Susana komen-  
tuko moja agustindarrak, Meza berezi bat egin eben:  
egun orretan il ziran bertako 14 mojakaitik eta Duran-  
go'n egun orretan ildako beste guztiakaitik. 1987.n  
urte onek ba-dauka baiña Sta Susana'koentzat beste  
gomutarik, oraingoan pozgarria: bera sortu zaneko  
400 garren Urteurrena. (MAITENA'K)

Laureun urte igaro dira bai, Durangoko Susana Deu-  
naren komentua sortu zala: urte ontan ospatzen dogu  
bere "Laugarren Mendemuga". Ospakizun jaia, Azillan  
13'an arratsaldean, izango dogu.

Mendeurren ori dala ta, Susana Deunaren komen-  
tua, eta bertan bizi diren lekaimeeri buruz, kondaira  
labur bat egingo dot.

1587 an sortu zan komentu au. Bere sortzaileak,  
Abadiñoko gazte bi izan ziren lenengo lekaime edo  
serorak. Bi onen inguruan beste serore batzuk alkartu  
eta olantxe komunidadea bat sortu zan.

Denbora artan, orain San Agustin kalea dan lekuan,  
Agustin Deunaren Semeen komentu bat egon zan eta  
ango nagosiaren menpean jarri ziren serora oneik. Eta  
olantxe artu ebezan Agustin Deunaren araudiak, eta  
Agustin Deunaren alabak egin.

Orain Komentu-Kalea deritxon etxetxu baten alkar-  
tu zan komunidadea, eta antxe asi eben euron lekaime-  
-bizitza.

Susana Deunaren izena daroa komentuak. Nola edo  
zergaitik ipiñi eutsoen izen ori?

Lekaimeak biltzar bat egin eben, danon artean euren  
komentuari izen bat aukeratzeko. Orretarako txantel  
batzuetan santu eta santeren, izenak idatzi eta zotz  
egin eben. Susana Deunaren izenak urten eban zotz  
onetan. Eta lekaimeak ez eben ondo artu ba, Susana  
Deuna, andere Erromatarra, Gabino Deunaren alabea  
ta Kaio, Aita Santuaren lobe, bere bizitza Jesukristo-  
gaitik emon ebana, ez zan askorentzat ezaguna.

Orduan bigarrenez egin eben zotz eta bigarreanean  
ere, Susana Deunak urten eban. Ostera ere lekaimeak  
esan eben:

—Irugarrenez egingo dogu zotz!

Eta irugarrenean ere Susana Deuna agertu zan. Olan  
lekaimeak ikusi eben, euren Patroi edo Zaindaria Susa-  
na Deunak izan bear ebala. Eta Durangon eta ingurue-  
tan olantxe ezagutzen dira "Zuzana Deunaren Lekai-  
meak" edo, "Santa Susanakoak".

Zertan igaroten dabe euron denbora Susana Deu-  
naren Lekaimeak? Otoitza ta lana dira euron jarduke-  
tak. Lekaime oneek Jaungoikoari euron otoitzak eskein-  
tzen deutsoez, Durango'ko erriagaitik; Euskal Erria ta  
mundu guztiko premiñakaitik. Eta otoitzarekin aldizka-  
turik esku-lanak eta soloan ere lan egiten dabe. Eta  
baita ikastetxean ere.

Durango'ko ta inguruetako ume asko etorten dira  
Santa Ritaren ikastetxera (olan da ikastetxe onen izena  
ta). Bertan eziketa artu eta Erlejiño edo Zeruko Bidea  
ikasten dabe.

Gazteren batek nai ba'dau bide au onartu, Susana  
Deunaren komentuan ongi etorria izango da.

Agur irakurlok, beste baterarte.

IZARO

### ITZ ARGIAK

Itz argiak bear dodaz neure burua  
neure adimena argitzeko maitasunez,  
neure elburubidea, neure ingurua,  
osasuntzeko berarizko gizatasunez.

Ondamenezko gizartearen akulupean  
koldarki, erio kutsaduraz, ezingo gara  
beti zemaipen bizi bildur ta ikara  
giza lorrinkeri onen itzeldurapean.

Drogaren eragiñezko mozkeripean,  
ezingo gara bizi ustel-sundaz, kiratsez  
eskuz-esku, nun-nai eriotza dakusgunean...

Itz argiak bear dodaz egoera baltz oni  
egokiro arpegi emoteko, zentzunez,  
itz argiak, ibillaldi onen aringarri.

MUNIATEGI'TAR SABIN

## SANTU EUSKALDUN BI

Aurtengo urrillaren 18'an, mundu guztian misiñoien eguna ospatzen dan igandean, Aita Santuak euskaldun bi ezarri dauz santuen zerrendan. Biak dira misiolariak eta orregaitik, ondo etorri da jazokizun au misio-eguna munduan ospatzeko.

### ERKIZIA'TAR DOMINGO

Santu biak dira gipuzkoarrak, orregaitik dagoz pozik gure anai giputzak.

Erkizia'tar Domingo Errezil'go Bildain baserrian jaio zan 1589'an amasei urtekoa zala sartu zan domingotarren anaidira Donostia'n eta andik bostgarren urtean Pilipiñetara bialdu eben eta emen, Manila'ko Santo Domingo'ren lekaide-etxean egin eban lenengo mezea.

Manila'n amar urte egin ondoren Nagasaki'ra joan zan 1622'an merkatari jantzita.

Amar urte egin ebazan Japon'en eriotz-arriskuan eta 1633'an, dagonilleko Andra Mari egunaren aurreko egunean, 14'an, arrapau eben, 44 urtekoa zala eta anketatik eskegita il eben, lurrean egindako zulo baten garri-raiño sartuta. 30 ordutan iraun eban bizirik oiñaze orretan.

### MIKEL AOZARAZA

Oiñati'n jaioa dogu au, 1598n.urtekoa.

Gazteiz'ko Santo Domingo'ren lekaide-etxean egin zan lekaide domingo'tar eta 1634'an joan zan Pilipiñetara.

Emen egoala, eskari ausart bat egin eben lekaide-etxeko arduradunak: Fedearen alde bizia emoteko gertu egozananak, Japon'era joan zeitekezela, erasoak an itzi ebazan utsuneak beteteko.

1636'an joan zan Japon'era gure Mikel, isilka, eta Okinawa ugartera sartu zan lenengo, gero andik Japon'era sartzeko, baiña Okinawa'n bertan atxillotu eben.

Urtebete giltzapean igaro-ondoren, 1637'an Nagasaki'ra eroan eben. Ara elduta laster, irailaren 13'an, esku biak lotu eta kaiola baten sartuta zaindu eben bere auzia epaitzeko. "Kristiñaua ta Barri Onaren zabalzaillea zalako" ezarri eutsoen eriotzarako epaia, Erkizia aita il eben antzera ilteko. Oiñaze ta eriotza emoteko era oneri *anatsurushi* izena emoten eutsoen Japon'darrak.

Orduko agirietan agertzen danez, aita Aozaraza'k eriotza garratz orretan umore ona, adore aundia eta barruko bake arrigarria agertu ebazan.

Ilteko oiñazetan eukela oiñazelariak ekin eta ekin eskatzen eutsoen fedea ukatzeko, eta askenez, lurrera jatsi eta matxetaz samea ebagi eutsoen.

Irailaren 29'an il zan, 39 urtekoa zala:

### EREDU EUSKALDUNENTZAT

Orra or fedea benetan artu daben euskaldun bi.

Gure artean fedea atzerantza doan sasoi onetan, eredu doguz fededun sendo bi oneik.

Ez dira gure denporetako santuak, bear ba'da euren bizitzea be ez gauza askotan gurearen antzekoa, baiña or barruan dagoz iraunkorrek diran irakatsi batzuk: Sinisten dana benetan sinistea, sinisten danagaitik bizia emoteko be gertu egotea, gure erriarentzat eta mundu guztiko errirentzat askatze ta salbatzerako dan fedea bear dan sakontasunaz artzea.

### OLAZAR'TAR MARTIN



*Aita Domingo Erkizia Lete eta Aita Mikel Aozaraza Garibai oiñatiarra santu*





## GOGOETA ARIN BATZUK ("Abeletxe")

GOMUTAZ

Gizon umoretsuetaz esaten da, besteak baiño lenago artzen dabela esatera doazanaren grazi, gatz eta umorea.

Manu Ziarsolo, edo lagun eta euskaldunon mundu txikiko "Abeletxe"gan erraz igarten neban ori. Zerbaite esan orduko, barrezka eta malkotan geratzen zan. Umoreak ataraten eutsazan malko ugari ta gazituak, begiak gorritzeko eran.

Gizon ona, bat aukeratzekotan. Gizon lodiak umoretsuago izaten dira eta ontasunean zabalago. A bera lodi eta gizenera baiño argalera geiago makurtzen zan, baiña ontasunean ez eukan argalkeririk.

Espiritu utsa zan abertzale lez. Kanela zotza lakoa, euskal usaiñez kutsututen. Koitadu eta dardarati zala-koan, bete-beteko zan. Beretzat eukana eta ekiana, edozeineri emoteko gertu.

Gerratean, etxean tarterik ba eukan, arek ez eutsan ukatuko gudariei atsedean lekurik. Sukalde, pasillu eta egal guztiak menditik atsedenera jetxitako gudariz beteta gabetan, gure gerrateko neguan.

Bein adiskide bat eldu jakon gaberdian. Nun sartu, ia aterik zabaltzeko tarterik be ez ba egoan? Baiña "Abeletxe"k ezin inor kanpoan itxi. Etxe inguruari begirakada bat egin, inun kapiduko ez zala konturatu zanean, geiago pentsatu barik esan eutsan: Etorri adi nire gelara. Andrea orma aldera botako joagu ta irurok kapiduko gozak oiean. Ta "Abeletxe" bera erdian zala, an lo egin eben irurak.

Orrelakoxea zan "Abeletxe". Eukana danena.

Edari toki txiki bat eukan bizibidetzat, Bilbo'ko San Mames kalean. Baiña berea ez zan ori. Nik esango neuke aitzaki bat zala. Berak doai bat eukan, Bilbo baten zoritarrez askok euki ez dabena: euskal abertzaletasuna, edo abertzaletasun euskalduna. Orrek banakatu egiten dau angu jendea, bearrezkoago egin.

Bilbo'n abertzale ugari dagoz. Baiña belarri motzak, akatsa daukenak asko: euskera bakoak. Eta "Abeletxe" lez euskera ondo menderatu ezkerro, oraindik bakanago egiten dau bat, premiñatsuago. Origaitik etxerako lanean baiño, apostolu lez alkar laguntzan geiago ibiltzen zala esango neuke gerra aurretxoan. Ango batzoki ta alkar-tetan euskal azia ereiten, euskal asterokoetan idatzi eta zabalkundea egiten. Eta abar asko.

Ortik etorri jakon "Eguna" sortu zanean, angu zuzendari aukeratzea.

Bilbo noiz jausiko egoala, une batetik bestera urteerako bideak etenda geratuko zan bildurra sartu zanean, bera etorri jatan "Eguna"ko idazkaritzara, eta goikoen agindua zala ta, gauzak egozan lez itxi ta Balmaseda

ingurura urten bear giñala, bideak sarratu baiño len. Ez egoala denpora galtzerik.

Orrela beragaz joan nitzan "La Herrera" deitzen dan lekura, soiñean soiñekoak beste barik.

"Eguna"ko adiskideak mindu egin ziran, eureri ezer esan barik igestu bearraz, baiña nik egiz esan neike "Abeletxe"k goikoen agindu lez adierazi eustana bete nebala, prisaka, kotxea atean zain egoala, eurak be beste bideren batetik bardin jokatu ebelakoan, une aretan, goiz aretan, bakarrik nengoalako idazkaritzan.

Gerra ondorena ba dakit "Abeletxe"rentzat itzala izan zala. Batetik iges, bestean eskutatu... gauzak zerbaite arindu edo bigundu arte. Gero Bilbo'n baketan iztea lortu ebanean, Bermeo'ko konserba saltzen edo ta txori txiki bat atara al izateko eskintzen eutsena saltzen ezagutu neban. Baiña gixajoari, len abertsaletasun garrak erooten eutsana, orain aurkakoak jaten eutsen, noz-nai isun eta errazoi bako baituketen bidez.

"Euskerazaleak" alkarteak bere aterpea eta al eban laguntza eskiñi eutsan urte batzutan eta antxe ikusten neban idazteko makiña zar bateri taka-takaka.

Euskal antzerkia maite eban. Ortik, besterik ezean, aukera orregaz baliatu nai izatea. Ala egin, gertu eta idatzi zitun lan batzuk. Bera zana ezagututa, ezin ukatu batzuk umorez beteak zirala, besteak txukun eta olerkitsu. "Txinpartak" taldearentzako lan ariñak, laburrak, estampak ziran geienak. Talde orren txingarra izan zan bera. Bere bidez geien ezagutu erazi zitun bere lanak: Agur Donibane, Afal orduan, Artzaiñaren ametsa, Atsoa gaztetu bear dogu, Bermeo'ko portuan, Eguberri aizeak, Eztegu ta erdi, Goiz otoia, Gogozar, Gabon gabonetan, Katalin Errotako, Jai arratsalde baten, Paris'en gogo txarrez, Sorgiñak Etxaburu'n, Saku jantzia eta abar.

Bear ba da beretzat lanik atsegiñen eta zotiñik geien eragin eutsana "Gasi gazak" liburua izan zan. Umorez betetako kontakizun, gertaera, ipuin eta abarrez bete, euskera erraz, jator eta errikoian. Igarri barik irakurten diran ipuin labanak. Bear ba da berak asierako lez idatziak, eukan etenbako iturriaz baliatzeko aukera geiago eukiko ebalakoan.

Baiña esan lei gizona bakarrik ez dala ezer, ingurua be bere alde euki bear dauala. Eta "Abeletxe"ri semearen eriotzak, etenbako jazarraldi, jo eta zigor, espetze eta lepokadak, eta beste abar askok, etsipena lakoa sartu eutsen, kemena kendu eta gaixotu. Orrela azken urtetan gaixo ta ia ezaupide barik oean egon ondoren, egun andirarte agurtuteko be ezaguera barik, itxi ginduzan lengo illean.

Zeruetan billatuko al dogu umore barriztu eta etenbakoz!

A. ZUBIKARA

## MANU ZIARSOLO, OLERKARI (1902-1987)

Azken urteotan bizi izan dan lez, ixil-ixillik joan jaku Aitaren etxera gure Manu Ziarsolo, "Abeletxe". Begoña'n ospatu ziran illetak bere arimearen alde joandako irailaren 20'an.

*Gizona.*—Era asko daukaguz gizona ezagutzeko: arpegiz arpegi, berba egiñez, alkarregaz bizi izanaz, ar-emonak eukiaz, eta abar. Nik ezagutu izan dot Manu kartaz, artu-emonez eta iru-lau bider San Mames kaleko bere bizi-pisuan alkarizketak izanaz.

Baiña, idazle zan Manu, euskal idazle, ta ortaz ezagutu neban nik modu berezian: euskaldun zintzoari dagokionez, umore aundikoa zan Abeletxe. Olan jaku agertzen bere "Gazi-gazak" (Donosti, 1976) deritxon liburuaren puntu ta zeaztasun guztietan. Gizasemea ezagutzeko bide egokia jaku, ba, idazleak paper-orrietan erein dauan arnasa beroa.

V'garren "Euskal Literatura" liburuan, onela idatzi neban nik: "Bilbotarra dogu Manu; gizaseme langillea, umoretsua ta antzerkiari emona... Itxas-ertzeko aizeari kresal-sunda darion legez, umore onaren piperra be berezko dogu. Ipuin eta esaera bizi-bizien gatza barriz egundo be ez jako palta euskaldun erneari. Doai oneikaz jantzia dozu "Abeletxe", ezizen onez baita ezaguna gure literaturan".

*Euskal idazle.*—Bizitza guztian lan-arloari ekiña dogu Abeletxe, euskal barrutian bat az be. Umetatik ekian euskeraz, baiña ekian ori aberatsago egiten alegindu zan: solo bat be, sasiz bete ez daiten, landu egin bear izaten da. Orrelaxe Manu, berezkoari lagundurik, euskaltzale ta idazle errime gertatu jakun. "Kirikiño'k" zirikatuta, gazte zala asi zan "Euzkadi"-n idazten.

Eta or-emen idatzi ta idatzi, entzute zabalekoa genduan Abeletxe gerra aurretik. Orduan euskal landan lan egien talde txalogarria gogoratu, ona zer diñoskun A. M. Labaien jaunak "Euzko-Gogoa"-n: "Langille oiei eskerrak lurra gertutzen joan zan euskera utseko egunkari bat sortu al izateko. Eta egunkari ori mirariz edo Bilbo'n 1937 guda artean. "Eguna" ezenez bostillabetean, Bilbo erori arte argitara atera zan. Bizia eman zioten gizonek gure omen beroa merezi dute". Egunkari orren zuzendaritza Ziarsolo'ren eskuetan egoan, Augustin Zubikarai zuzendariorde, ta Ander Artzeluz (Luzear) eta Artetxe'tar Luki aolkulari zitula.

Bego emen txirristadan lez esanik, pozik artu eta irakurri oi genduan guk guda-zelaian eta oiñean "Eguna". Nik neuk eta nigaz egozan gudari gazteak gau-ordu luzeak emoten genduzan berau irakurten Sagasta, Elgeta, Ubera ta Basalgo'n lenengo ta Bizkargi, Meñaka, Gamitz eta Fika'n gero, euskal eguneroko orren orrialdeak irunsi bearrean. Orduko paperetatik, izan be, auxe zan egi utsa iñoskuna.

Prosaz ta bertsoz asko idatzi eban Ziarsolo'k. Mañaritarak bultz eraginda geien baten, eguneroko ta aldizkari oneitan beintzat, aren lanak irakurri daikezuz: "Euzkadi", "Ekin", "Euzko", "Erri", "Jagi-Jagi", "Gudari", "Bizkaitarra", "Tierra Vasca", "Euzko-Deya", "Anaitasuna", "Euzko Gogoa", "Karmel", "Olerti", "Zeruko Argia" ta abar.

*Antzerki-lanean.*—Euskalduna ez jaku bertso, esakun zorrotz eta izkirimiri-zale bakarrik; are geiago esan geinke teatru-zale. Teatruak, barriz, bere mamiña bear dau, ta jantzia, biak atsegingarri. Gai xee ta ariñak, bizi-bizi erabiliak izan ezker, beti jakuz eder, gozo; aomen aundiko giz-egintzak be, gaztediari batik bat atsegin jakoz eta ernai egon oi da arein goraberak ikusi ta entzuten.

Guda aurretik bazan Bilbo'n, baita ondoren be, "Txinpartak" eritxon gazte taldea, dantzaz ta teatruz oso trebe zana. Talde onentzako antzerki-lanak Manu'k gertatuak ziran geienak. Bereak ditu: "Jai arratsalde baten", "Artzaiñaren ametsa", "Goiz-otoia", "Afal ordua", "Bermio'ko portuan", "Atsoa gaztetu bear dogu", "Gabon gabonetan", "Jai aureskua", "Sorgiñak Etxaburu'n", "Eztegu t'ardi", "Katalin errota'ko", "Agur Donibane", "Saku jantzia", "Bertsolari sariketa", "Eguberri aizeak", "Paris'era gogo txarrez", "Gogozar Berbizkunde goizean", eta abar.

Oneitatik batzuk saritu eutsoezan: 1956'an "J. Urkixo Mintegiak" eraturako antzerki batzaldian leen-saria eroan eban "Eguberri aizeak" lanarekin, eta beste bik, Bertsoari sariketa ta Gogozar Berbizkunde goizean'ek deduzko aipamena merezi izan eben.

Kirikiño ta Abeletxe etziren bitxi-billa joan euren lanak azurtzean. Baiña biak, Mañari'tarra ta bilbotarra, jenteak eder ditu ta oso irakurriak dira.

*Olerkari.*—Ez eutson begitadarik egiten eusko-olerkiari. Eta ba ekian noizik-bein bere arimea neurtitz ederrez adierazoten be. Besteak beste, “Karmel” eta “Olerti”-n emon ebazan poesi sentikor batzuk.

“Olerti” (1959) sortu zanean, lenengotik asi jakun idazten. Eta irugarren liburuxkan agertzen da bere “Odol-tantua!”, Aste santuko ipuiña, bertotan. Poema luze bat dozu, lau sail daukazena, 48 aapaldigaz. Noemi hebratar andra gaztea zan, ama izan naiez eta lau urte ezkontuta eroanarren, seiñik ez eukana. Olerkariak:

“Emazteak seiña nai, senarrak naiago,  
Irain Zorrotzak aitzen asita bai dago;  
Gizonak maiz kalteak bere kolkorako  
Jainkoan naiarekin pozik eztalako.”

Orra, seme bat izan dau Noemi’k. Zelako poz bete! Baiña urte bi joan dira, ta mutikoak itz bat be ez dau esan. Zoriona naigabe biurtu, zorionaren argia illundu. Noemi intzirika, ezta guzur negarra! Zer egin? Igarle bat —Kristo— dabil Palestina’n mirarigille. “Erruki zadi, Jesus, ene amodio!”. Eta ara doa ama gaztea amar eguneko bidean. Egunak eguzkitsu, gabak izar-zelai, bidea neketsu, baiña urrundik Jerusalem da nabari. “Auxe da —diño amak— Kristo gure anai!”

“Kristo anai dogu, izanik Jainkua.  
Amak arrazoia dau, anai begikua.  
Gaur osteguna da ta biar barikua.  
Nai neuke arki balei bere “Medikua”.

Bariku goizean goiz, Noemi semearekin laster jagi da; Jerusalem’go arriak oin-azpitan ditu. Kaleetan jentea artega. Ango iskanbilla! Zer jazo ete da! Oiuak: “Gora

Barrabas eta Ori il daiela!”. Eta errurik bako Kristo Kalbariora daroe. Eriotzara epaitua izan da. Baiña Noemi, itxaropenez betea, bideratu jako, eta begirada gozoz, ta ama-samurtasunez, umetxo mutua erakutsiz Kristori diñotsa: “Ona neure semea”. Eta Kristok gozo-gozo begiratu dautsa:

“Jesus’ek igarri dau andrearen naia;  
Eskua luzaturik beragana doia;  
Orduan soldadoak asarretu baia  
Ugalexko zigorraz jo-erazo beia.”

Lurrera jausi da Kristo. Begiak lurrean eta Kristo-gan burua, nun ete dabil Noemi’ren gogo? Gauza dizditsu bat ikusi dau lurrean, “gorri-gorria bera, pitxi antzekua”. Ezta mundukoa, zerukoa baiño. Ona emen sendakaia, Kristok ixuri dauan “Odol-tantua!”.

“Odol-tantua bean ikusi dauneko,  
Noemi’ren biotza irakiten dago;  
Kiñuka semeari adierazo dautso  
Tantoaren aurrean belaunbikatzeko;  
Ondoren eskutxoak lurrean jartzeko  
Ta mingaintxuarekin odola batzeko.”

Eta semeak odol-tantoa miazkatu ebañeko berbaz asi zan aingeruen antzean. Noemi’ren poz bete!

Modu onetan osoturik daukaguz Abeletxe’ren beste poesi-lanak be: euskera gozan, ondo neurturik eta rima osotan.

AITA ONAINDIA

**ZER**

**ALDIZKARIA**

- ILLEROKOA (MENSUAL)
- BIZKAIERAZ IDATZIA (EN BIZKAINO)
- ERRI-JAKINTZAREN GAIK (MATERIAS POPULARES)
- IRAKURGAI ERREZ-ERREZAK (LECTURA FACIL)
- ARAZO SAKONAK AZTERTUTA (ANALISIS DE TEMAS)

**ARPIDETU ZAITE!**

**ZER**  
EUSKERAZALEAK

Colón de Larreátegui, 14-2.º - BILBAO-I

## LAUAXETA ABERTZALE

Olerkaria ez da egiten. Olerkaria berez sortzen dan landarea dogu. Doai batek jota, inguratzen yakona biotzaren sakoneneraiño sentitzen dau olerkariak, eta zirra-ori besteakan piztuten dakiana da. Olerkaria sentipenen-edertasuna munduan zear ereintzen doa ezker-eskubi, lorak bedar-artean sortuz, edertasuna oiko gauzetan ikusi-erazoz, argia itzalen artean iragarritz, eta maitasunaren janzkiaz oro estalduz.

Olerkari osoa izateko, ez da naikoa norberagan olermenaren doaiatz jantzia izatea. Benetako olerkaria izatea, eder-miñaz ornitua izanez gaiñera, barruan oartzen dana lagun urkoari oartu-erazotea da, besteak be eder-miñez jota gertatu daitezzen, eta lur-gaiñetik edertasun eta maitasuneko gaindegietara olerkariaren eskutik igon aal dagien. Nire eritxiz, beraz, olerkari osoak baldintza bi oneik bete bear dauz:: Olermenez jaio izatea lenengo, eta bigarrena bere barru-miña besteakan biztuteko gai izatea.

Errientzat bearrezkoak dira olerkariak, eta are geiago beste erri baten jopu diranean, askatasuna lortzeko bearrezko indarra jaritsi dagien. Bere buruaren jabe izan nai dauan erria, gurari onegaz aske izaten asten da, bere gogoa, arimea, aske dalako. Gure erriak besteak aiña olerkari izan dau, eta Euzkadi'k iñoizkorik larrien bear ebazanean, oneitariko bat izan genduan, Lauaxeta. Abertzale ta Jaungoikozale izan zan olerkari au, eta au egiztatzeko, ez dogu besterik bere bizitza ta olerkiak aztertu baiño. Bere bizitza ta eriotza batez be; kinka larri onetan guzur eta estalki barik aren benetako jasa agertzen dalako, eta Lauaxeta bere azken-orduan eriotzari aurre egin eutsan gizandiek oi dabean antzera: Bere goiburuak aldarrikatuz.

Bilbao'ko Euzko Gaztedian ezagutu neban Lauaxeta, Yon, nire anai zanaren bitartez. Soiñez, ertaiña zan, eta beragan agiriena, betaurren atzetiko begi sarkorren sakontasuna. Bera ezagutu baiño ez, gizon apartekoa zala konturatu nintzan, eta izan be, ez nengoan oker, orduko olerkaritzat ospe andikoa zan eta. Garai aretan, Euzkadi eguneroko euskal-sailleko arguraduna zan, eta olerkiz gaiñera itz-lauz idazten eban ugari. Berba urriko gizona eta barrukoia izanik, une luzeak isillean irauten eban, bere sentipen indartsuak beste mundu batera eroiala. Kultur zabaleko gaztea zan, asko irakurten ebanetako, eta itz egitean, iñoana zentzunez betea zan. Abertzaletasuna alde guztietatik erion, ez berba-lapiko orrean sasi-abertzaletasuna, olerkari baten biotzean aberriaganako maitasun-sua sortzen dan lez: gartsu ta itzungi-eziña.

Mendigoizalea zan. Bein baten, Aralar'en gipuzkoarrek eraikitako Igaratza mendi-aterpean, ani Mikel Deunetik nentorrela, eta bera beste leku batetik, an alkartu gintzazan. Arrats-beera zoragarria zan, eta eguzkiak Bizkaik'itik ostentzeko zorian, gorrimiñezko ozkorri yaukala margozten eban. Une luze batez egunaren eriotzari begiratu eutsan, eta gero auxe esan eban: "Illuntze zoragarria benetan, Gustav Doree'ren margozki bat dirudi".

Abertzalea eta izlari sutua, zan aldetik, eusko abertzaletasunaren mezulari biurtu zan, eta Bizkaia'n zear amaika erritan Euzkadi gure aberritzat aldarrikatu eban guda-aurreko aldietan. Olerkari sakon bateri dagokionez, bere mezua sutu ta sentikorra, biotzak eragiten dauzan orreitarikoa zan.

Guda etorri zanean, asikereatik Euzkadi'ren alde jarri zan, eta Azkue, Euzko gudarostearen nagusiarekin aspaldi batez egin eban lan. Azkue'k baiña, ez eban gura gudalekura burrukan egiten joan zeiten, eta bere ondoan gordeten eban amaika jardun emotsazala, onein artean izparkari atzerritarrai lagundu egitsen, eta olan, prantzitar batekin ondapen-ostean Gernika ikertzen eba-la, atxillotu eben Frankoren gudariak, eta Gasteiz'era bialdu. Euzko Gudarostean ziarduean, Bidarte'n eta Bilbao'ko Eskolapiotan jardun eban, gudaletxe ziranean, eta bigarren onetan, ni gudari nintzala eta bera ango burua, azkenengoz alkar ikusi genduan.

Baiña benetako neurria damotsana, idatzita geratu da bere olerki ezilkorretan. Maitasuna, Jainko-zaletasuna, eta abertzaletasuna izan ziran bere olerki-gaiak. Gaurko goratzarrean, Lauaxeta abertzaletzat oroitu dagidan gaitzat jarri dausten ezker, bere abertzaletasun agirian jarriko dot, aren olerki-zati batzuk oroitu-erazoz.

Bere "Bide Barriak" bilduman, aapaldi au irakurri daiteke "Neguko Gaba" olerkian:

Asaben sutian piztu urrezko garra,  
ta goguan, bizitx-arau dan indarra  
Aberrijan txadon donia  
AREITZ-suba dagon sutia.

Bilduma onen ostean, auxe diño:

"Gaztaroko neurtitzok ez dira sakonak, eztira gurenak, gauza guren eta sakonik gastaruan eztalako egiten. Geruago Aberrijari yagokozan neurtitzak egingo dodaz. Euzkadi Amaren maitasunak jo naulako.

“Maitasunak sortu-azoten dauz neurtitzik ederrenak, eta maitasun bidetan azken barik, lenengoa naz. Maitasuna, Aberrija ta Uskurtza ixan dira gairik ugarrienak olerkariarentzat, neuretzako be bardin. Ludiko gairik kutunenak onexek yataz, Jel-pian esituta.

“Olerkarija barik Jeltzale benetakua nazala entzutiak, atseginduko nau. Euzkeraz idazten dot, Aberrijarren izkuntza dalako. Soluan atxurretan aberrija goralduko nebala, uste ba'neu, laster itxiko neuke lan au. Urtzi'k begi onakin ikusten daualako Aberrijak goralduten diñardubenen lana, kezka barik nabil.”

Berak idatzitako zati onek agiri-agirian jarten dau bere abertzaletasuna zelakoa zan.

“Arrats-beeran” izeneko olerki-liburuko aurre-itzan auxe irakurri daiteke (1):

“Amaika bidar jagi ixan naz izneurtuben ala, amai-ka bidar, ostera, erri onenganako maitasunak olerkijetara nauzu. Elerti-zaliak ezetz, abertzaliak bayetz! Nori nagokijoke? Bestiai txaluak jo edo noxian-bein sorayokeriz barre-egitia, eztijagua neuretzat litzake.”

Ikusi dagidun orain ESPETXEKUARENA'ren zati bat. Itsasoko espetxe baten dago abertzalea, eta aberriaren negarra entzutean, aske ipinteko eskatzen dautso atezaiñari. Ona emen zati ori:

Aberri amaren negarra  
neugana yatork mendijetatik  
Espetxeko atezain zarra,  
bein soillik azke laga nagik!

Atezaiñak:

—Agur giltzok, urrezko giltzok,  
guda-otsak dozak landetan!  
Arren, itxi ondo atiok  
eta galdu zaiteze uñetan.

Atxillotuak:

—Baiña aberri ama aldezteko  
enauk itxiko kate-barik?

Atezaiñak:

—Eure erri ori azkatzeko  
etxak iriko espetxerik!

Ona emen orain MENDIGOIXALEARENA bere olerkia:

(1) esan bear dautsuet, liburu au emen dagoan Aranbaltza'tar Ander'eri eskiñia izan zala.

## I

Mendi eze, ikurrin eder  
azke nai zaitut axian.  
Amar gasteren lerdena  
makilla luzez bidian!

Mendi-bitxidior berdiok,  
arin or duaz kantari:  
“Dana emon bear yako  
maite dan azkatasunari”.

Eta ixil dago arratsa  
Euskadi'ko lur ganian.  
Amar gasteren lerdena  
makilla luzez bidian!

## II

Gastedi orren didarra  
bai-dala didar zolija!  
Aberri baten samifñez  
urduri dabil errija.

Azkatasun-goxalderuntz  
sugarra dira basuak.  
Sugarra basuak eta  
zidar argija itxasuak.

Or duan oste-aldrea  
aberri-mifñez kantari!  
“Dana emon bear yako  
maite dan azkatasunari”.

## III

Gaste orreik goruntz doaz  
abesti eta ikurriñez.  
Lañuan baiña tiro-otsak:  
bedartza dager odolez.

Ikaraz doaz usuak,  
mendija dago ixillean,  
Amar gasteren lerdena  
bixitza barik lurrean!

Eta illuntzeko bakian  
norbaitek darrai kantari:  
“Dana emon bear yako  
maite dan azkatasunari”.

Gomutan izango dozue, urrean, zelan gudako lenengo aldietan, Gorbea'n atxillo egin ebezan, Elgezabal,

## OMENALDIA

Estabillo ta Kortabitarte. Gazte oneik su-iskilloz erail izan ziran egun batzuk geroago Gasteiz'en. Franco il eta gero, urtero lagun batzuk illobia ikertzen dogu arein aldeko mezea baiño len. Lenengo urtean, oroitarri bat illobian eraiki genduan, eta ez dakit nork esan eustan: "zein idazkun izango litzake egokia oroitarrian ipinteko? eta neuk auxe: "Zergaitik ez jarri Lauaxeta'k olerki baten idatzi eban auxe: "dana emon bear yako maite dan azkatasunari?". Eta idazkun ori irakurri daiteke gaur arein oroitarrian.

Goazen orain AMAYUR GAZTELU BALTZA, olerkiaren zati bat irakurtera. Dakizuenez, Naparra'ko askatasunaren alde, napartar batzuk eriotzeraiño burrukan egin eban. 1512'ko urtean jazo zan ori. Abertzale arein ekintza gorestearren, idatzi eban Lauaxeta'k olerki eder au. Luzatu ez naiten, azken aapaldiak bakarrik irakurriko dautsuedaz.

### AMAYUR'KO GAZTELU BALTZA

Amayur'ko gaztelu baltza  
—jausi yatzuz torre goitiak—,  
Baiña, arrotza, etzadi geldu,  
napar-seme dira guztiak.

Arresi gorri, zubi ausi,  
—zein gitxi diran zaldun orreik—;  
Erijo, samurño zakije  
aberri-min baitabiltz eureik.

Miranda'ko konte gaizto orrek  
jo egizuz zidar-turutak.  
Ikurrin bat —kate ta lili—  
eztau laztanduko aizeak.

Berreun gudari oso sumin  
gaztelu-pian dagoz illik.  
Ordutik ona —zenbat laiño—,  
Naparruan ezta aberririk.

Eta orain bere abertzaletasunaren benetako ezaugarritzat, Gasteiz'en egindako olerki bat osorik irakurriko dot. Eriotzaren begira idatzi eban, eta eriotzaren aurrean garan lez agertzen gara, iñongo sasi-estalki barik. Izan be, Lauaxeta'ren anditasuna agirian jarteko, iñoiz ez, olerki au baiño ziñaldari egitiagorik.

Entzun olerki zauskagarri au, eriotzaren aurrean adonez beterik idatzita. Izan be, neu beintzat, olerki au irakurten dodan bakotxean, barru-min batek astintzen nau biotzaren ondoraiño.

### AGUR EUZKADI!

Agur Euzkadi, Jaunak naroa  
Aberri eder argira.  
Neure negarrak jarion neuzan  
zeure mendiai begira.  
  
Seme bat zeukan, baiña etsayak  
kendu eutsoen biotza;  
soin ederrera ixuri yakon  
mayetz bateko goiz otza.  
  
Gurutz Deunari mosu egiñaz  
aldegin eutson mundutik,  
Kistoren gentza abo ganean  
loratu yakon gastetik.

Jaunaren maitez, aberri maitez,  
ez eban euki bildurrik,  
eta zeuretzat zorion utsa  
opaldu eutson gogotik.

Euzkadi ona, zagoz betiko  
Kistoren fede batean;

olan zoruna billauko dozu  
emen ezpada zeruan.

Eriotz deuna aurrean daukot,  
ziñistu bada, euzkoa:  
Euzkadi azke izan daitean  
zaindu Josu'ren legea.

Eder yatazan euzko bazterrak  
eder itxaso zabala;  
baiña oraintxe ederrago yat  
eriotz onen itzala!

Gaztea nozu bizitz onetan  
t'ez yatan palta gauzarik.  
Jauna! gogorra aldi onetan  
iges eitea lurretik.

Ezpedi egin neure oldea,  
zeure naia bai, ostera,  
Gogoia boa zeru argira,  
gorputza lur illunera.

Azken olerki onek, niretzat berak egiñiko onena edo onenatarikoa, agirian jarten dau bere abertzaletasun eta eriotz-aurreko adore ta zangartasuna. Eriotz-aurreko larritasunean, bere olermen eta abertzaletasun erraldoiak oroz gai agertzen yakuz ama-lurra iztean, bere anditasuna mailla gorenetaraiño dizdiraka. Berak, iskillo bat eskuetan gudari il gura izango leukean, baiña alanbearrak beste amai bat emon eutsan, eta olerkari-tzaren gudari onek, bere goiburuen alde dana eskiñi eban, eta niretzat ezpaibarik, bere eriotza gudari batena baizen aintzagarria izan zan. Eta goizalde baten, argi bakan bat az adoretua, errime, azkar, bildurbarik, erio-tzarekin eban deiara bideratu zan.

Espetxeko atadian, erailteko ataraten ebela, Abellana gudaletzeko Alejandro Aretxabala'rekin gurutzatu zan au atxillo sartzen ebenean, eta orduan Lauaxeta'k itaundu eutsan zein batalloikoa zan, eta gudariaren erantzuna entzutean, auxe esan eutsan: "gudari, biotz on...". Andik laster, Lauaxetara'ri bizitza kendu eutsoen tirotsak aditu ziran.

Gaurko bere goratarrea dala-ta, nire buruari auxe esan neutsan: Zer dagiket Lauaxeta'ren alde...? Eta orduan barruko eragintza batek: zergaitik ez, olerki bat...? Lanari ekin neutsan ba, eta itzaldi onen amaitzat, biotzetik lumara sortu yatan olerkia irakurriko dautsuet.

### OLERKARIA ODOLETAN

Il eben olerkaria  
argia sortzen zanean,  
udabarri yaukalean  
jausi zan ameslaria.  
Atzean orma zuria,  
zortzi zibillak aurrean,  
erori zan goizaldean  
gure Lauaxeta andia.

—Isillik yatort eriotza  
udabarriko goizaldean,  
nire aberriko magalean  
Jainkogana yoat biotza.

Gazte-gazterik joan zan  
Euzkadi'ko urretxindorra,  
errime, zintzo, gogorra,  
bizitzaren goizaldean.  
Betiko galdu genduan  
bere oler-min maitekorra,  
itzali zan ameskorra  
udabarriko zeruan.

—Ortzian somatzen dot eguna...  
Guda zital batek eria,  
negarretan dantzut etsia  
nire Euzkadi maite kutuna

Goizaldeko itxarkundean  
isildu ziran txoriak  
gaztearen begi argiak  
il-zorian ikustean.  
An, urrutiko ibarrean,  
ozkorriko izpi joriak  
biurtu ziran zauriak  
aiene isillak bai'liran.

—Txoriok, abestu zeruan...  
ilten lagundu egidazue,  
apa-laztandu nagizue  
ur yabildan azken orduan...!

Zortzi eztandak illerrian  
uxatzen dabez txoriak,  
zortzi naigabezko zauriak  
agertzen dira ozkarbian.  
Ertsi dira goiztirian  
Lauaxeta'ren begiak,  
odol biziko olerkiak  
sortu dira goiz-argian.

—Zortzi olerki gorri bizian  
jarri dira ene bularrean,  
zortzi larrosa eder-miñean  
jaungoikoaganako bidian.

Zeu lez erori ziranak  
egin ei'dabe aberria,  
eurok doguz euskarria  
gure anai maite joanak.  
Obi-kolkoan etzanak,  
gaztedi maitagarria...  
Au gure oiñaze larria  
Galdu genduan laztanak...

Euzkadi'ren alde bizi zan,  
iraun eban beti abertzale,  
Jainko ta erriaren maitale  
il yakun bere udabarrian.

Baiña ez da il olerkaria,  
bizirik darrai aizean,  
geugaz dogu biotzean  
aberriko ameslaria.  
Bera zan olerki-abia  
arrastiriko bakean,  
eta gaurko goizaldean  
atzoko asperen garbia.

Agur Lauaxeta kuttuna  
aberriagaitik opari,  
ames ederren abeslari  
bioatzu ene maitasuna.

ZUBIRI'TAR IÑAKI

## DROGA... ZER DALA-TA?

Gaur dirala bederatzi edo amar bat urte, gogoratzen naz zelan geure itzaldietan berba egiten genduan Euskadiko errietara droga etorteko zala bildurrari buruz, eta arazo onetzaz bear ziran neurriak artzen jakin bear genduala bere ondorio kaltegarri eta negargarriak ez gengiezan ezagutu.

Batzuk, lelokieriak esaten genduzala iñoskuen; beste batzuk, ez giñala baikorrak... Ordurako, zoritxarrez, uri nagusietan droga sartuta egoan, gazte asko drogaren erpeetan arrapatu-rik, eta kateatze onen indarra euren gorputz-arimetan somatzen eben.

Toki guztietan lez, droga, astiro-astiro, baiña indar berezi bategaz, aurrerantz yoian bere bidea egiten. Egia esatekotan, giroa edo ambientea gertaurek egoan droga-bizitzarako; mariñelen errikoak esango geunken lez "masixe" botata egoan eta laster agertuko zan agertu bear zana.

Batzuk, gauza barri bat lez agertzen zalako, gaurkotasunez jantzirik... artuaren-artuz bere menpean gelditzen ziran; beste batzuk, mundu onek emoten eutsuen eguneroko bizitza aspergarrizat eukeelako eta drogaren esperientzi barriak lilluraturik...; beste gazte asko, euren barruko eztabaidak ondo konpondu aal izatea gatxa be gatxa ikusten ebelako eta drogak eragiñez "beste neu bat" ausartuagoa, izlariagoa, alaitsuagoa barrizatzen ebelako...; onek eta areik, giza-legeen loturetatik askatasunez bizi nairik...; eta ainbat eta ainbat, uste izanez aini kaltegarria ezalakoan izango...

Gaur danok dakigu geure errietan gertatu dana eta, zoritxarrez, ondiñokan gertatzen dana.

Nori dagoz, geure iritziz, egoera larri onen iturburuak?

Leenengo ta bein esan bear doguna auxe da: mundu guztia kezkatu-rik daukan arazo bat dala, eta munduak ezagutu dituan aldakuntzetara jo bearrean gagozala zeozer ulertu nai badogu, beintzat.

Goazen, bada, arira. Luzeegi ez egitearren geure lantxo au, puntu bat ikutuko dogu bakarrik.

Aspertuta gagoz esaten eta entzuten, baiña sustrairik garrantzitsuenetarik bat auxe dogu: KONTSUMOKO gizarte bat osotzen dogula; au da, EZ GARALA IZATEKO BIZI... EUKITEKO BAIÑO. Eta ondo dakigu eukiteak ez dauala sekula egarririk kentzen ezta iñoren biotzik asetzen bere. Eta bizitza onela ulertzen badogu... gure elburua argi dago: jan, edan eta amaibako atsedenezko-jai egin daigun biar ilko gara-ta.

Onela bizi izateak —jan, edan eta atsegiñ guztien billa ibilteak— garrantzi aundiko ondorio bi dakarguz:

1. Edozein, baiña batez be gaztea, zenbat eta egarri biziagoaz ibilli EUKITEAREN bide-utseetatik zear, ainbat eta ariñago asiko da asperzen, naskatzen eta gauzen izatea, neurria eta balioa galtzen. Auxe da, aini zuzen be, neurribako ugaritasunaren emaitza edo frutua: ezerezeri garrantzirik ez emotea... eta bein eta barrero gauza-barri-pozgarri baten ames-utsean egotea. Ona emen zabaldua droga-bidea.

Bigarren ondorioari eldu baiño leen, azalpentxo bat nai dausat egin oraitxe bertan esan dodanari. EUKITE ori ez da

gauzak eukiteari dagokion zerbait bakarrik, ez; EUKITE orretan sartzen dira, gazteak izanik, nagusien jokabideak, artu-emonak eta bizimodua eureganatzea; neurribako askatasun baten ibiltea; lau gauza dakiezelako Matematikasetan, Fisikan edo Elektronikan, gurasoen gaiñetik dirala uste-izatea; gaurkotasunez jantzita datorren edozer onartzea eta beste batzuk atzokoak diralako baztertzea eta abar. Auxe da, zoritxarrez, bizi dogun egoera latza eta garratza. Eta argi dago: zenbat eta gorago igo egizko sustrai barik... ainbat eta beerago jausiko da bunbada egiterakoan.

2. EUKI-UTSAren bigarren ondorioa auxe da: Bizitza, zentzunbako ikuspegi baten frutu lez onartzea.

Ez badago GOIKO-JAUN bat, nor izan daiteke emen beian jauna? Nork dauka egia? Zer da egia? Zer da gizona? Zer da historia edo kondaira? Non dira gureak izan ziranak? Non egongo gara geureak diranakaz? Batzuk beti ondo eta beste batzuk beti txarto? Zer dala-ta sufritu? Zer dala-ta bizi? Onelako galderak geuk uste baiño geiagotan dabiltz drogazaleen ago eta biotzetan. Drogazale guztiak ez dira lasaitasunaren eta alperkeriaren seme-alabak, ez.

Ba dagoz, uste dabenak, galdera onei emon bear jakezan erantzunak liburuetan ikasi bear dirala diñoenak; bai, orretan egi zati txiki bat ba dago; baiña, batez be, galdera orreik beste bideetatik artu bear dabe euren erantzun egokia: *egizko artu-emon maitetsuetatik* ETA NORBERE IZATEAREN ALDE LAN EGITETIK. Onela, burua ta biotza alkarturik, poztasuna eta bizitzaren zentzuna datoz bereala eta batera. Ementxe datza gure kakuaren ardatza. Bai... zelakoak dira gure artu-emonak? Zerreri emoten dautsagu garrantzia gure munduan? Zeintzuk dira, pertsona lez, gure elburuak? Famili lez? Erri lez? Batzuk diñoena egin bearko ote da?: dana usteldurik dagon ezker... dana apurtu eta mundu barri bat sortu?

Amaitu dagigun geure lantxo au azken-iritzi egoki eta itxaropentsu bat jarri-rik.

Argi ta garbi dagoz drogasaltzailleen gurariak: leenengoa, dirua, dirua eta dirua. Eta bigarrena, pixka bat ezkutuan dago, baiña ba dakigu zein dan: mundu au aldatuko leukeen iraultzailleak lotan euki, amesetan, mundutik aparte, faltsoke-rikiz atsedenez beterik... gauzak bere betiko tokian jarraitu dagien.

Esnatu gaitazan, bada, borondate oneko gazte eta nagusiok!!

Zubi itxaropentsu bat egin daigun, gagozan ibaiaren ertzetik beste ertzera ino eltzeko: *Eukitea IZANAREN menpean egon daiten*; bizitza, burruka jator bat lez ulertu dagigun; nagusien esperientzi garbiak eta jatorrak gazteen kritika egokiagoagaz eta maitetsuagoagaz bat egin... jokabide eta urtenbide barriak asmatu ta urratu daiguzan gazteen Euskadi barri ta garbi bat sortzen aaleginduz.

Gaurkoz besterik ez. Agur bero bategaz agurtzen zaituet.

KEPA AGIRRE



## SORGIÑEN AMAIERA

Askotan entzuna dot, sorgiñak, Eibar'en eskopetak egiten asi ziranean amaitu zirala. Baiña egia beste alde batetik doa.

Amasei eta amazpigarren gizaldian jende askok sorgiñetan sinisten eban arren, ez eben danak siniskeri onegaz burua galdu.

Lope de Isasti'k autortu eban, "abade eta fraile askok ez dabe sorgiñetan sinisten, eta pulpituetatik ez dala sorgiñik esaten dabe".

Nafarroa Erreiñuko agintariek kezkaz beterik Salazar'ko Alonso gizon jakintsu eta zentzundunari agindu eutsuen, sorgin arazo onetan zer egia eta zer guzurra izan zeiteken argi eta zeatz jakiteko.

Gizon jakintsu onek Nafarroa'ko Baztan aldean 1.820 pertsona aurkitu ebazan jendeak sorgintzat eukazanak. Baiña guzti onein artean Salazar'ek 420 pertsona bakarrik ontzat artu ebazan lekuko edo testigu izateko balio ebenak, beste enparaduak zentzunbako edo burubakotzat baztertuz, edo ume txikiak ziralako, eta buruz nastuak zirala ikusi ebalako. Eta asi zan azterketak zentzu-nez eta benetan egiten.

### AKELARREAK

Salazar'ek aurkitu eban, 26 leku zirala sorgiñen batzarrak egiten ziran Akelarreak: Donestebe, Zubieta, Sunbilla, Donamaria, Alzate eta abar... Baiña sorgin-batzar-leku onei buruz ez eban Salazar'ek gauza garbirik aurkitu, "bi leku izan ezik", diño berak.

### LAPIKOKO GANTZUAK

22 lapiko aurkitu ebazan gantzu eta auts kaltegarritz beteak, eta botikarioak aztertu ondoren "barruko nasteak ez zirala kaltegarriak" epaia emon eban. Badaezpada be "naste ori txakurrai jateko emon jaken, eta oneik ez eben kalterik artu".

### AKELARRERA EGAZ?

Sorgin batzuk "euli antzera" joaten zirala autortu eban, beste batzuk osterara "bela baten antzera", beste batzuk "ez dakiela zelan" autortu eban. Batzuk autortu eban: leioen eta ateen zirrikuetatik urtenda, beste batzuk ke-zuloetatik gora urtenda joaten zirala Akelarrera.

Beste batzuk autortu eban: eurak Akelarren egozan bitartean deabrua geratzen zala oian euren orde, etxe-koak Akelarrera joan zirala jakin ez dagien.

### SORGIÑEN GUZURRAK

Auzitegiko aretoan egoala sorgin batek autortu eban: "leku aretan bertan goiko leioan zortzi sorgin egozala

epailleai begira". Baiña guk, diño Salazar'ek, ez genduan ezer olakorik ikusten.

Beste mutil batek autortu eban "euren errian zapo batzuk arrika il ebezala, eta zapo orreik deabrukumeak zirala".

Beste sorgin batek esan eban "berak auzitegiko aretoan, gu gengozan lekuan, deabrua, sorgiñen Jauna, ikusten ebalako", baiña guk an ez genduan deabrurik ikusten, diño Salazar'ek.

Beste neska batek autortu eban "deabruak oiñetako iru beatz kendu eutsazala berari", baiña guk ondo begirata, ori ez zala egia garbi ikusi genduan.

### DEABRUAGAZ EZKONTZAN

Lizardi'tar Kataliña'k autortu eban: "bera Akelarren deabruagaz alkartu zanean, odol asko bota ebalako lurre-ra", baiña lekuko batzuk neska onek esandako lekura joanda, ez eben odol arrastorik aurkitu. Baita andra batzuk, guk aginduta, neska onen gorputza aztertu eban, eta birjiña zala ikusi eban.

Beste andra batek autortu eban "deabruagaz alkartu ondoren zapoak jaioko jakozala", baiña au sinistea zorakeri andia dala nok ez dau ikusten?

Donestebe'ko beste neska batzuk autortu eban "deabruagaz Akelarren ezkontzaz alkartzen zirala", baiña andra batzuk neska onein gorputzak ondo begiratu ondoren, dontzellak zirala autortu eban...

### BESTE GUZUR BATZUK

Egia bazan sorgiñak, Akelarrera joateko, ate eta leioen zirrikuetatik urteten zirala, zelan ez eben iges egiten espetxeko leioetatik zear, egaz, auzitegiko epai zorrotzetik alde egiteko?

Logroño'ko epailleak erdaldunak ziran, eta sorgintzat epaituak euskaldun utsak, zelan konpontzen ete ziran alkar ulertzeko?

Azkenez, Salazar Jaunak garbi autortzen dau Logroño'ko auzitegian sorgiñen aurka egindako auziak "ganorabako auziak izan zirala", testigu edo lekuko buruarin eta nastuagatik, epailleen sinist-errezagatik, baita epaituen bildurragatik...

Sorgiñai buruz beste milla gauza idatzi daitekez, baiña, jakin bear da aldi aretan Ingalterra, Frantzia eta beste lurralde askotan ziur-ziur sorgiñetan askok sinisten ebela, eta millaka sorgin zigortuak eta bizirik erreak izan zirala.

GOIKOTXEA'TAR IÑAKI

OTO ONDOEZ ETA AROTZ

Izen aundiko sendagille batengana joan da Oto eta arek azterketak egin ondoren, gure gizona larritu egin da.

—Jauna, berorrek izen aundia dau eta ordainketak neurri orreteroak ba'dira, nik ez dot izango ordaintzeko dirurik, arlotetxua naz-eta...

—Arlotea zara?

—Naikoa, jauna. Eskalea ez naz; baiña, aberatsa be ez.

—Ez izan orregaitik ardurarik; al dozun eran ordainduko dozu.

—Orretan ba'da, ondo.

—Baditut beste gaixo geiago be lanakin ordaintzen daustenak.

—Ondo, ondo, oso ondo iruditzen jat.

—Begira, bat jostuna da eta neure gorputza jantzi, bear dodanean arengana joaten naz soñekoa egiteko...

—Alan ba'da, niretzako zoragarri.

—Eta, zuk zer lan egiten dozu?

—Ogetxuak eta il-kutxeak.

\* \* \*

Beste bein, Ponponato egoan tabernan, Oto'ren aurrean, bere keixak kontatzen:

—Ezin dot lorik egin: ogean etxunten nazen bakoi-txeko, burutasun larriak etorten jataz burura.

—Zer burutasun?

—Oge-azpian gizonen bat edo piztiren bat egon leikela eta zearo larritzen naz.

—Lorik egin ezin orregaitik?

—Lorik ezin iñondik be...

—Nik emongo dautzut erremedioa-diñotso Oto'k.

—Sendagille sikiatra zara ala?

—Sendagille ez eta beste zer ori gitxiago oraindik.

—Zer zara, ba...?

—Arotza.

—Arotza izanik, zelan osatuko nozu?

—Zure ogeari anak ebagita.

\* \* \*

Illentzako ogetxuak egiten aspertu da Oto eta lanbi-dea aldatu nai. Egunkari batean auxe irakurri dau:

“Erantzun aundiko lana eskeintzen dogu eta gizona

bear dogu berrogei urtekoa, bizitazunez betea eta erabagiak unetxu baten artzeko gai...”

Oto'k berrogei ta bat urte ditu, milla bizibideetan ibillia da, bizia, Australia'raiño joateko erabagia artutakoa eta abar.

—Ara ni emen. Zuen iragarkia irakurri dot eta neu naz zuek billatzen dozuen gizona, Australian be izana naz...

*Bere buruaren goraltzak egiten ekin eban. Lilluratu ebazan entzuleak:*

—Bai, zu zarala uste dogu bear dogun gizona. Asi lanean.

—Bai, orixe; baiña, aurretik itzi egidazue andra Joxepa neure emaztearekin konsultatzen...

Oto gizajoa aroztegira barriro, il-kutxak egitera.

Pototo'rengana joan jaku Oto; bidean eurite batek arrapatu dau eta zeafo goitik-beera buztita eldu da Pototo'ren etxera. Idegi dautsoenean gizona alan ikusita onelan diñotso etxeoandreak:

—Baiña, gizona, zelan ez dozu, guardasol edo aterkirik artu urten baiño lenago?

—Aztu egin jat.

—Ez zara gero bidean gogoratu?

—Bai, gogoratu naz.

—Noz, baiña?

—Ementxe, zuen ate-ondoan, itxiten asi nazenean.

\* \* \*

Tutean ekin dabe... Pototok:

—Ik, Oto, kartetan beti erabazten dok; baiña, zaldikinielarik ez dok bat be sekula igarri.

—Bai, ori be alan dok.

—Suerte ezberdiña...

—Bai, nik emen kartak nastetan jakiat; an, ostera, zaldirik ezin nastau.

\* \* \*

Berbetan dagozala. Pototo'ren txakurrak meriendea jan dautso Ototxo'ri eta onek bere aitari:

—Aitatxo, txakur ori poliziakoa da?

—Bai, mutil, Alemania'tik ekarritakoa, oso berezia.

—Lapurretan egin daust.

—Eta, zer? Beste bat artu.

—Poliziakoa ba'da, zelan egiten dau lapurretan? Izena ondo ipiñita dauala uste dozu?

## JUANTXO-TXIKI PANPIN ETA ROBOT

Umeak giza-indarra barruan dauelako, bere buruari eragiteko aalmena eta gaitasuna be ba-dauko. Aalmen eta gaitasun orreik, ez dauke oraindiño orretarako trebetasunik. Indar txikiak izanik, osotasunerako egiñak ba'dira be. Egunen baten indar-orreik aunditu eta zabaldu egingo dira.

Barruko argala dau Juantxo-txikik eta orrexek eskatzen dautso kanpotik etorriko jakon agindua, motorra ibiltzen ipinteko. Agintze ori umeak gogoz artzen dau berez. Eta ori olan izanik, esan daikegu panpin eta roboten antza badauela.

Barriri esango dogu lenago esana, ez dala jaió panpin izateko; ez-eta robot izateko be. Bearkizun ori adiñakin gutxitzen da, askatasun egarria sortzen dan neurrian.

\* \* \*

Gizatasunera eltzen dan neurrian, Juantxo-txikik bere mendeko izatea maitatzen dau eta kanpotik dator-kiozan aginteak, ez ditu gogo onez artuko.

Gizon izan nai dau Juantxo-txikik.

Bere barruko askatasunaren jabe dan gizon osoa.

Askatasun ori barik ez dago ez gizon eta ez emakume osorik.

Zure seme-alabak zapuzterik nai ez ba'dozu, eurakin zer jokabide darabiltzun ondo aztertu.

\* \* \*

Ordu orrek joten dauanean, gaur eguneko gazteek askatasun osoa nai izaten dabe, oraindik orren jabe zateko gaitasunik ez ba'daukoebe. Alan be, askatasun-egarria bearrezkoa dau bere azken mugara elduko ba'da.

Zein jokabide artu?

Estu-estu lotu ala sokarik gabe larrera bota?

Ertz batetik bestera alde aundiegia dago. Ortxe ekin bearco dozu soka-tiran.

\* \* \*

Zeure gonai lotuta euki ba'dozuz oraiñarte, lokarriak lasaitzen asi bearco dozu eta askatasun-bidean lagundu. Irakatsi askatasun ori zelan erabilli. Bizian zear Juantxo-txiki berak zaindu bearco dau bere burua. Oraintxe bertan asten ez ba'da ori ikastén, ez dau sekula ikasiko eta aretarako gai ez da sekula izango. Zure menpean euki dozuz seme-alabak asieran alan bear ebelako; baiña, beti zure menpean eukiteak ez dautse kaltea baiño ekarriko. Zu nortasun aundikoa eta jenio gogorrekoa, izanik Juantxo-txiki beti zure esanetara eukiten ba'dozu, auldu egingo dozu eta txorimalo indargabea biurtuko jatzu.

\* \* \*

Bearrezkoa jako Juantxo-txikiri menpeko izatea.

Euki menpean bear dauan neurrian. Bear dauan arte eta bear dauan bestean. Ortik kanpora, ez.

\* \* \*

Robot-antzeko da Juantxo-txiki biziaren asieran; baiña, robot-antzeko izateari itzi bear dautso bere sasoián. bizia aurrera doakion eran. Bizia zuzendu bear jako askatasun bidean, robot-antzeko izan ez dedin bizian zear.

Badira baztarretan gizon eta emakumeazko robot-antzekoak eta "andere" ta panpin izateari sekula laga ez dautsoenak.

Noren erruz?

Nok jakin. Aldietan, gurasoen erruz.

Nortasun aundiko gurasoak arrisku ori dauke; euren umeai nortasuna kentzeko arriskua.

Umeak ezitea, euren nortasuna sortaraztea da.

Sortarazten laguntzea.

Ez dot uste lan txiki eta zeia danik.

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1


# Gure alegiña Bizkaiarentzat da.

Gaur, beti lez, gure erriaren billaketa-lanari laguntzeko gagoz.

Gaur, aurrera joteko sasoiari, itxaropena oztopoen gainetik jarrita,  
otseintza ta laguntzarako gure gogorik onena,  
barriro ta geiagotuz sortzen da.

Gaur, eta egunero, Bizkaiaren izena omentsu eta,  
batez be, emoneko berba lez daroan  
Aurrezki Kutxaren lana, indarra ta amesak, ez dabe utsik egingo.

Berari erantzuten jarraituko dogu.



TXURRUKA'ri oroitarria Areetan.  
Itxasoaren oldarra gelditzen,  
gizonaren neurribako  
alegiña:

**BIZKAIKO**  
AURREZKI KUTXA



CAJA DE AHORROS  
VIZCAINA

**Bizkaiko Foru Diputazioak sortu eta bultzatutako Erakundea.**